

Espainiako hiriburua Paris

Behin baino gehiagotan entzun dugu Espainiaren eraketa Frantziakoaren antzekoa dela. Hortaz ez da harritzekoa borboitarrek, Espainiako Erresuma hainbat mendetan bere esku izan duten dinastiak, Frantzian izatea jatorria. Beraz, normala da Frantziako ereduak Espainian kopiatu nahi izatea, baina baditu kopiatzea horrek bere berezitasunak.

Frantzian Iraultza egin zen duela bi mende eta erdi eta borboitarrek desagertu ziren edo urkamendira eraman zituzten. Espainian, aldiz, tarte labur batzuk kenduta, hor diraute agintean. Izan ere, familia osoa Erresumako aurrekontuen gain bizi da, bestelako diru iturri batzuk kontuan hartu gabe.

Madrilek Paris moduko hiriburu izan nahi du. Horregatik, Estatuko administrazio publikoa bertan kokatuta egoteaz gain, jarduera ekonomiko oro bertan zentralizatu nahi dituzte. Azken finean, Madril hiriburu ekonomiko, militar eta administratibo bilakatu dute. Eta alderdi politiko gehienek komunikazioa, politika, kultura ere bertatik irradiatzen dira Estatu osora. Hori guztia mantendu ahal izateko dirua behar da eta hori aurrekontu publikoen gain gauzatu ahal izan dute: horregatik inbertsio publiko gehienak Madril en egiten dira, Katalunia eta beste herrialde batzuk saihestuta. Ondorioz, kataluniarrak abandonatuta sentitzen dira, estatu normal batek bere hiritar ororengana iritsi behar bailuke.

Kataluniaren independentziarako norabidea galgatu nahian, bertako enpresa erraldoiak erakartzen saiatzen ari da Madril, orain arte horrelako politika ankerrik gauzatzen saiatu ez balitz bezala. Euskaldunok ere zerbait badakigu, jakin ere, horrelako afe-rez. Esaterako, hor daukagu BBVAren kasua: interes politikoen ondorioz, jarduera guztia eraman zuen Bilbotik



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Katalanak beldurtze aldera, Espainiako komunikabide gehienak azpimarratzen ari dira CaixaBankek, Banco Sabadellek, Aguas de Barcelonak, eta abarrek Kataluniatik egoitza soziala atera dutela, horrek utziko dituen ondorio kaltegarriekin, batik bat zergetan. Baina hainbestekoa izango al da ondorio negatibo hori?

Madrilera, lanpostu zuzen eta zeharkako gehienekin.

Katalanak beldurtze aldera, Espainiako komunikabide gehienak azpimarratzen ari dira CaixaBankek, Banco

Sabadellek, Aguas de Barcelonak, eta abarrek Kataluniatik egoitza soziala atera dutela, horrek utziko dituen ondorio kaltegarriekin, batik bat zergetan. Baina hainbestekoa izango al da ondorio negatibo hori?

Jadanik enpresa horiek beren jarduera ekonomiko handiena Kataluniatik at gauzatzen dute. Nahiz beren jatorrian kataluniarren aurrezkiak izan, gurean Euskaltelen kasuan lez; denboraren poderioz enpresa horien jarduera elite ekonomiko eta politiko espainiarren eskuetara joan da eta berau da gehien profitatzen den klasea. Bestalde, enpresa horien ohiko jarduerak eta kudeaketak Katalunian gauzatzen jarraituko ei dute, bertako merkaturak oso garrantzitsua baita; bestela ikusi zer nolako beldurra sortu zen Banco Sabadellek dirua ateratzen hasi zirenean kataluniarrek.

Bestalde, enpresa erraldoi horiek sortutako mozkinen gaineko zergak Estatuko ogasun zentralak bilduko ditu; beraz, orain arte bezala. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, tokiko zerga, egoera berdinean geratuko da eta Kataluniako herrietan gauzatutako jarduerak Estatuko ogasun zentralak transferituko die, tokiko eragiketa ekonomikoen arabera. Galduko lukeen diru sarrera publiko bakarra sozietateek kapitalaren eragiketen (Transmisio eta Ekintza Juridikoen gaineko Zerga: kapital soziala handitu, murriztu, e. a.) gaineko zerga izango litzateke, nahiz bolumen txikiko zerga den.

Hori dena, gaur egungo estatusak jarraitzen baldin badu, baina independentzia eskuratzen duen bezain pronto, Kataluniako ogasun publikoak izango litzuke eskumen horiek guztiak eta Madriletik menpekotasunetik askatuko litzateke, herrialde subirano gisa zerga eskumen oro bereak izango baitira, ez Espainiarenak. ■